



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA-ESKAINTZA ETA -ONARPENA PROGRAMATZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTU BAT EGITEKO.

Hezkuntza Sailak xedapen orokor bat egingo du, Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoa osatzen duten ikastetxeen plangintza- eta onarpen-prozedurak arau-testu beraren pean bateratzeko.

Arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, aurretiazko kontsultaren izapidea erabaki zen, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua 1. apartatua ezarritakoa betetzeko, helburu izanik herritarrekiko elkarreragin-izapideari bide ematea, zeina testu juridiko arauemaile bat onartu aurretik egin beharrekoa baita.

Kontsultak honako alderdi hauei buruzkoa izan behar du:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukerak.

Horregatik guztiatik, hogeitaz hamar egun balioduneko epea ezartzen da, xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiak iritzia emateko aukera izan dezaten. Izapide hau araua gauzatu aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arautzen duen hasiera-fasearen barruan.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena. – Aldez aurreko kontsulta publikoa egitea Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa osatzen duten ikastetxeen plangintza- eta onarpen-prozedurak arautuko dituen xedapen orokor baten proiektuaren gainean, xedapena landu aurretik.

Bigarrena.- Hogeitaz hamar egun balioduneko epea ezartzea, arauak ukitzen dituen herritarrek, entitateek eta erakundeek, hala irizten badiote, agindu honen eranskinean adierazitakoen gainean daukaten iritzia azaldu dezaten, Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

BEGOÑA PEDROSA LOBATO
Hezkuntza Sailburua





ERANSKINA

1.- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Hona hemen arau-xedapen horren oinarria:

- 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena.
- 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.

Dekretu-proiektu honekin konpondu nahi den arazo nagusia dagoen araudiaren sakabanatzea da; izan ere, gaur egun, arau honen bidez arautu nahi diren prozesuak testuinguru soziodemografiko desberdinetan onartutako bi dekretutan jasotzen dira: bat 2009an eta bestea 2018an:

- 1/2018 Dekretua, urtarrilaren 9koa, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena.
- 21/2009 DEKRETUA, otsailaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatez besteko ikastetxeen sarea antolatze eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen. Estatuko araudi osagarria, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa barne.

2.- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.

Euskadiko hezkuntza-sistemak, aldaketa demografiko eta sozialen ondorioz, gero eta erronka handiagoak ditu, eta aldaketa horiek plangintza estrategiko zorrotza eta, aldi berean, malgua eskatzen dute. Jaiotza-tasak murrizten ari dira 2008tik. Fenomeno demografikoak aztertzeko EUSTATen adierazleen arabera, jaiotza-tasa gordinak behera egin du etengabe 2008az geroztik: 1.000 biztanleko 9,9 jaiotza izatetik 1.000 biztanleko 6,1 izatera igaro da 2023an; hau da, 0,1 puntu gutxiago 2022an baino. Eta hori jaiotza-tasa txikiena da joan den mendeko 80ko hamarkadatik.

Era berean, atzerriko biztanleak gure lurraldera iritsi izanak eragina izan du euskal hezkuntza-sisteman, eta erronka berriak sortu dizkie ikastetxeei eta hezkuntza-sistemari. Gaur egun, atzerriar jatorriko biztanleria (hau da, atzerrian jaio dena edo gutxienez atzerriko guraso bat duena) Euskadin eskolatutako biztanleriaren % 12 inguru da.

Euskal hezkuntza-sistemaren helburuak hauek dira: ikasle guztien ikaskuntza-emaitzetan ekitatea lortzea, jatorrizko herrialdea edozein dela ere; ikasleak ikastetxeetan eskolatzean oreka lortzea, eta ikasle guztien inklusioa erdiestea.

Gauzak horrela, eta aipatutako helburuak kontuan hartuta, Hezkuntza Sailak dekretu hori egiten hastea erabaki du.

3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

Dekretu berriak egungo arau-esparrua eguneratzeko beharrari erantzuten dio, besteak beste, helburu hauek lortzeko:

- Hezkuntza-eskaintza programatzeko irizpideak ezartzea, benetako eskolatzeko-premietara egokitzeko, gehiegizko eta gutxiagizko eskaintza saihestuz eta plaza publikoen eskaerari erantzuteko behar besteko eskaintza ziurtatuz.
- Programazioa eskolatzeko inklusiboago eta orekatuago baterako tresna eraginkor gisa eratzeko delako bermatzea, bizikidetzaren eta gizarte-kohesio handiagoa sustatzen duten kulturarteko hezkuntza-guneen alde eginez.
- Eskola-plazaren eskaintza benetako beharretara egokitzeko aukera ematea, ikastetxea aukeratzeko eskubidea baliabideen erabilera egokiarekin harmonizatuz, plangintza orekatu eta jasangarriaren bidez eta gardentasuna, objektibotasuna eta herritarren parte-hartzea bermatuz.



- Berriazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen eskolatze egokia eta orekatua lortzea, irakaskuntzaren ekitatea eta kalitatea bermatzeko.

4.- Izan litezkeen bestelako aukerak.

Aurreko apartatuetan adierazitakoak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da dekretu-proiektu hau egitea, ez baita bestelako irtenbiderik hautematen.